

**AITZINA**

**Edizioa:** Fermín Muñarriz. **Koordinatzailea:** Mariasun Monzón. **Aholkularia:** Iñaki Egiña. **Diseñatzailea:** Iuan Luis Napal. **Helbidea:** Rincón de la Aduana, 18 beheka. 31001 Iruñea. **Tifinoa:** 948-21 99 99. **Faxa:** 948-212329. **E-mail:** aitzina@nafarkobi.net

# NORANTZA

# ARANTZA LIZASO

AUZO LAGUN KOOPERATIBAKO KALITATE ZUZENDARIA

## «Etorri diren enpresa handiei aurre egitea da gure helburua»

Duela 30 urte martxan jarri zen Auzo Lagun kooperatibak mila lagun du egun, eta ISO 9002 kalitatearen ziurtagiria jaso du. Hala ere, kooperatiba honek ezin du geldirik geratu, aurre egin behar dielako Euskal Herrian sartzen ari diren enpresa handiei.

Azken hogeita hamar urte hauetan Auzo-Lagun espezializatu egin da, teknologia berriak jarri ditu martxan, zerbitzu emateko modu desberdinak erabiltzen ditu. Bai, aldaketa handia izan da.

**ISO 9002 kalitatearen ziurtagiria jaso duzue. Zer da ziurtagiri hori?**

ISO 9002 kalitatearen estandarra da, mundu osoan balio duen zertifikatua. Guri oso garrantzitsua zaigu lortzea, zabaluntzari

begira. Gainera, ziurtagiri horrek gurekiko konfiantza sortuko du gure bezeroengan, azken batean, gure lan egiteko moduarengatik lortu dugulako ISO 9002.

**Ziurtagiri hori jaso ondoren, zein da Auzo Lagunek hartu duen hurrengo helburua?**

Gu kooperatiba munduan bizi gara eta mundu honetan ISO 9002 lortzea ez da nahikoa gure bezeroen aserbetetzea neurtzeko. Helburu hori lortzeko, guk egiten dugun anarekin gure bezeroak zein puntutaraino dauden pozik neurtzeko, orain dela bi urteket beste eredu bat erabiltzen ari gara, EFQM deitzen dena. Hori da Europa osoan erabiltzen den eredu, eta ez du bakarrik bezeroen satisfakzioa neurtzen, baita enpresako langileena ere. Gure helburuak lortzen ari garen jakiteko barenua dugu eredu hori, guk aserbetetze barenua horiek hobetu nahi ditugulako.

**Eta zein duzue hurrengo desafioa?**

Kooperatiba handitzea da hurrengoa, batez ere janari presatatu eta banatzean dagokionez. Eroskik dituen zentro handietan zabaltzen ari gara, baita Eroskiren gainalde handietako jaxteke batzuetan ere. Hori dela eta, Estatu espainoleko leku batzuetara iristen ari gara, Valentziara, adibidez. Auzo Lagun handitu behar da Euskal Herriar etorri diren enpresa handiei aurre egiteko.

### Beñoña Simon

**Nola eta noiz sortu zen Auzo Lagun?**

Kooperatiba hau 1969an sortu zen. Orduan, kooperatiben munduan emakumeek, ezkontzen zirenean, lana utzi behar zuten. Gara horretan Auzo Lagunen helburua emakumei lan egiteko aukera ematea izan zen. Horrela jai zen, hogeit bat emakumeren eskutik, baina egun emakumezkoak eta gizonezkoak daude enpresan, eta hogeit laurte milara pasa gara.

**Zein lan mota egiten da Auzo Lagunen?**

Auzo Lagun Mondragon Kooperatibaren barruan dago eta kolektiboen zuzendakotako janaria prestatu egiten du. Garbiketa lanak ere egiten ditu, bai ikastoletan bai enpresetan nola hospitaletan. Egun bi sukurtsal dugu Gipuzkoan, bata Arrasaten eta bestea Iruñean, orain dela gutxi zabaltzen hasi gara eta Iruñean beste bat jarriko da martxan ikasturte honetan.

**Asko aldatu da Auzo Lagun hogeita hamar urte hauetan?**



Pascual Onbe

### Zirtoka



**Txillardegi**

**Estatu-mugak: Hare! Hare!**

Timor uhartea: 30.000 km karritu. 1.600.000 biztanle. Bi herenak Ekialdeko Timor delakoa. Europatik urrun, oso urrun. Australiatik beretik, ia-ia 1.000 kilometro, eta Djakartaik 2.000. Europatik, nik dakita, 15.000 kilometro inguru. 1520an portugaldarrek «deskubritu» zuten Timor, espainiarrek Amerika «deskubritu» zuten bezala. Indio gizarajoen arimak «salbateratu» hasi ginen joaten haraino gu europarrak, txintxo-txintxo. Ramiro de Maeztu fatxak dixit.

1618an holandarrek iritsi ziren inguru haietara, eta Mendebaldeko beren parteak okupatu zuten. Indioen arimak salbatzekotan, jakina. 1642an Ekialdeko eskualdeak okupatu zituzten portugesek. Eta fifty-fifty: erdia Amsterdam-dik gobernatuko zen uhartea, beste erdia Lisboa-tik. Eder-to! Bertakoak? Connais-pas? 1859an erdibiketa hori bedinekatu zuten Euro-pak. Aurterakoa: Mendebaldeko, Holanda; Ekialdea, Portugal. Muga nola finkatu ote zen? Arimak salbateratu joan ziren Konpainiei galdetu beharko. Baina partiketa zuzena izan zen segurki, eta «ajustada a derecho». Ongi dakigu guk horren berri. Hain/República Dominicana zatiketa egin zen bezalatsu: Logika hutsaz, eta bertakoen interesen defentsan. Noski!

1945ean, deskolonizazioaren olatuan, Indonesia osoa, Mendebaldeko Timor barne, Europa-tik Askatuta. Ekialdeko Timor, berriz, Portugalen gelditu. FRE.TI.L.L.N. mogimendua Askatzaileak orduan (1975) Lisboa-erriko loturak hautsi, eta Askatasuna indarrikatu. Orduan... Indonesia indarka sartu, eta gaur arte. Ramos Horta eta Ximenez Belo Apezpikuak Nobel-Saria jaso zuten orain dela hiru urte. Timortarren eskubide nazionalen alde egindako borroka nekagaitzagatik. Nola onartuko Estatuak, ordea, Orde-nu Internazional famatua puskatzea, eta muga zaharrak erraustea, beharrezkoa eta eskubidezkoa denik?

Timor dela-ta, Estatu GUZTIAK daude gaur dardar. Gora Estatua! Diot-e ahobatez. Hare! Hare!

## Aitzindariak

**INESA ASBAJE**  
1 6 5 1 • 1 6 9 5



«Nadie el Vasquenze mormure  
Que juras a Dios eterno,  
Que «aquesto es la misma lengua  
Cortada de mis abuelos.»

UNIBERTSITATEKAKO BULEA SORTZEZ HERRIA DAU...

Aqui en Vizcaya te quedas.  
No te vas, nene viciosa:  
y si te vas, vamos todos,  
Vagots.

SOR. JUANA INPS DE LA CRUZ  
IZADIAN DU IKASTEN, LIBURUAK DEBEKATURIKO...

Señora Andre María,  
Porque a los Cielos te vas?  
Y en tu casa Aranzazu  
No quieres estar?

Ay que se va Galdun naz,  
Nere vici quicico galdun naz.

16 urteitan serosa sartu da Las jeronimas ko...

Guasen galanta contigo,  
Guasen nere lastana  
Que al cielo toda Vizcaya  
Has de entrar.

Galdun nazuz que se  
Nere vici g...

gaubelatan idatzi dituenak erro ditza...

Arantza Lizaso + Galdun Naz + Galdun Naz